



IPUINAREN ORDUA

**Umeentzako
Ipuin Saioen
Egitaraua**

Alabazan
Ipuin-kontalarikak

AURKEZPENA

Ipuinek gure kultura islatzen dute: gure nahiak, beldurrak, ulertzen ez duguna... azken batean gu geu garena kontatzen dute. Fantasiaz, ongia eta gaizkia, lor daitekeena eta lortezina ondo desberdintzen dituzten pertsonaien bidez... irudimenaren munduan konpondu ahal izaten ditugu errealitatean konponezinak izango liratekeen egoerak. Horregaitik ipuinak hainbeste gustatzen zaizkigu.



Kultura Narratiboa gizadiaren ondarearen parte diren euskarri fisiko ukigarrien bidez adierazten da, baina baita ukiezinak diren beste formen bidez, hala nola, ahoz aho heldu zaizkigun ipuinez, bertsolaritzaz edota abestiez, Kulturaren Ondare Ukiezina osatzen dutenak.

Irakurtzeko, idazteko eta entzuteko zaletasuna gizartearen gazteen artean sustatzea da guztiok – familiok, eskolak, instituzio publikoek, erakunde pribatuak, liburu-saltzaileak, argitaletxeak eta abarrek – hezkuntzaren alorrean dugun erronka garrantzitsuenetako bat.



Ez dugu ahaztu behar ipuinek dibertitzen eta hunkitzen gaituztela, hizkuntza garatzen laguntzen digutela, gure barne-mundua zabaltzen, amets egiteko eta iruditze bidea irekitzen digutela eta, batez ere, pertsona gisa aberasten gaituztela, literaturaren mundu magiko eta harrigarrian sartzeko aukera eskaintzen digutelako, betirako harrapatuko gaituena.

Guzti honengatik, Ipuinaren Ordua ezinbesteko momentu magikoa izan behar da.

“IPUINAREN ORDURAKO” PROPOSAMENA

Zuen liburutegian edo kultur-etxean hilabetero "Ipuinaren Ordua" bideratzeko saioak proposatzen dizkizuegu, kontatzeko ahots, era eta erregistro desberdinetan: narratzailearen ahots eta keinuez kontatutako ohiko saioak, liburuen laguntzaz egindakoak, musikarekin batera, irudi eta eskulanetan oinarritutakoak, ingelesaz eta baita itzal txinatarren magiaz gauzatutakoak.

Proposatutako saioek hilabete bakoitzarekin eta beraien ospakizunekin harremana daukate: Liburuaren Eguna, Emakumeena, Familiarena, Arimen Gauda-Gau Beltza-Halloween, Gabonak,...

Honez gain, aipatu ere hiru kontalari garenez, gure ahots eta kontatzeko estilo desberdinek ere aniztasuna emango diotela zuen "Ipuinaren Ordua"-ri.

Urtarrila

Txikientzako ipuin-saioa

2-6 urte bitarteko neska-mutilentzat



Arnold Lobelen "Sagu kontuak" liburu ezagunean arnasa hartuta, honen lehen istorioak biltzen ditu saioaren beste ipuin guztiak. Ipuin guztietako protagonistak gure txikien hain gustuko diren sagutxu jator horiek dira, akaso beraien antz handia daukatelako: txikiak, goxoak eta jostalariak.

Maitasunez eta umorez, Bego Alabazanek ipuin labur eta arin hauek kontatuko dizkigu liburuetako irudiez eta berak egindako eskulanez lagunduta eta baita, nola ez, bertaratzen diren txikien parte hartzeaz.

"Sagu txiki, sagu maite"

Kontalaria: Bego Alabazan



"The Queen of Musutxuak"


Kontalariak:

Joaquín Ponte eta Pedro Alabazan

Saio honetan senideko txikienek gozatuko dute printzesa ausart baten abenturak ezagutzean; neska honek badaki zer nahi duen eta mundu zabalera abiatzen da nahi eta behar duen horren bila. Ez du dragoi edota sorginen kontra borrokan egin beharko, baina bai topatu beharko du aurkitzeko hain zaila den Musutxuen Erregina.



In this session the little ones in the family may enjoy the adventures of a brave princess that goes for the conquest of the world to find what she needs. She does not have to defeat a witch or a dragon, she has to find the unknown Queen of Kisses.



Otsaila

Saio elebiduna ingelesez eta euskeraz

5-9 urte bitarteko neska-mutilentzat

Martxoa

Nesken alde, denon alde

5-9 urte bitarteko neska-mutilentzat

Pentsatzen ohi da ipuin herrikoietan neskak nahiko leku eskasean geratzen direla bertan agertzen diren mutilekin konparatuz, beren betebeharra istorioan oso pasiboa edo bigarren mailakoa delako.



beldurtzea eta kikitzea uzten. Nolakoak diren neska hauek, nolakoak!!

"Ah! Nolako neskak!"

Kontalaria: Bego Alabazan



Ipuin-saio honetan agertzen diren neskatilak guztiz bestelakoak dira: istorioen protagonista aktiboak dira; beraiek egin eta desegiten dute umorez eta naturaltasunaz, eta ez dute inongo munstroak

"Paperezko Ateak"

Kontalaria: Pedro Alabazan

Liburuak etxeko atea bezalakoak dira: bestaldean mundu zabala dago gure zain. Irekitzen dugun liburu bakoitzak irudimenez beteriko mundu ederra erakusten digu, eta horretarako orriak besterik ez ditugu igaro behar.



Liburuen laguntzaz bideratutako saioa

4-10 urte bitarteko neska-mutilentzat

Saio honetan jakin ahal izango dugu Paperezko Ateak diren liburuen azalak irekitzean zer gertatzen den.



Maiatz

Ipuin saio musikatua

7 urtetik aurrerako ume eta beren familientzat

Carolina txiki-txikia zela gurasorik gabe geratu zen. Gaur jakin izan du biharamuenan bere familia berria etorriko zaiola bila umezurtztegira.



- *Nolako izango da nire familia berria?* - galdetzen dio ilargi beteari gau osoan zehar. Familia mota desberdin asko-asko daudelako.

Baina Carolinak argi dauka berea izango dela benetan behar duena.



SM argitaletxearen bidez, Susana Lopez-ek idatzitako eta Ulises Wensell-ek iruditutako liburuan arnasa hartzen duen ipuin-saio musikatua.

"Euskal Herriko Kondairak"

Kontalaria: Pedro Alabazan



Saio honetan Euskal Herriko betiko kondairak elkar banatuko ditugu; izaki liluragarriez betetako euskal folklore aberats honetako istorio eta kondairek kristautasunaren aurreko garaietan errotu eta herriko oroimenean iraun ahal izan dute ahozko narrazioaren poderioz.

Animaliek oraindik hitz egiten zuten garai urrun hartan Euskal Herrian gertatu zenaz hitz egingo dugu, erraldoiak, lamiak, iratxoak, herensugeak, sorginak eta izaki fantastiko ugari bizi ziren leku batez.



Ekaina

Euskal mitologiako ipuinak
6 urtetik aurrerako umeentzat

Udan ipuinez freskatzeko proposamena luzatzen dizuegu gehien gustatzen zaigun tokian: pizinetan edo hondartzan, plazan, liburutegian...

Txonboa egin eta gero, elkarrekin ipuinetan murgildu ahal izango gara sakoneraino igeri egiten eta gero, atera eta eguzkitan patxada ederrean etzateko.

Zatoz ipuinetan txipli-txapla egitera!



Senide osoari zuzenduta. Ordu beteko iraupena.

"Bazen beste behin..."

Kontalaria: Pedro Alabazan

Abiatu zaitez hitzaren bidez paregabeko bidaia magiko honetan; zure irudimena beteko da maitagarriez, animalia abenturazaleez, aurpegi gaiztoko itsaslapurrez, eta kontatuak izateko gogoz bidean gurutzatzen diren hainbat pertsonaiez ere.



"Barre egiteko ipuinak"

Kontalaria: Bego Alabazan

Saio honetan elkarrekin tarte gozoa emateko istorio dibertigarriak kontatuko ditugu, barre egitekoak, ipuinen lehen eta azken helburua horixe dela uste baitugu: ondo pasatzea.



"Ipuinak Biraka"

Senide osoari zuzendutako sormen-gunea

Dado hauek ez dute balio partxisean jolasteko, ez. Irudiez beteriko dado txoro hauek beraiengan ezkutatzen dena irudikatzeko ziztatzen gaituzte.

Mahai gainean zure eskuaz botatzen dituzunean agertzen diren istorioak asmatzen ausartuko zara? Seguru behar besteko ausardia duzula, eta gainera ez zara bakarrik egongo, denon artean hainbat istorio egin ahalko dugulako eta horrela gure irudimena besteenarekin lotuko da benetan fantastikoak diren ipuinak sortzeko.



Urria

Jende ausartarentzako saioa

4-7 urte bitarteko neska-mutilentzat

Saio hauetako ipuinak beldurrezkoak baino beldurrari buruzkoak izango dira. Ez dira beldurra ematekoak beldurrak kentzekoak baizik, ipuin hauetan ikusiko ditugulako beldurrei aurre egiteko modu desberdinak. Denok garelako zerbaiten beldur, normala da.

Garrantzitsuena beldur hauei kontra egiten jakitea da, gure barneko munstro eta sorginen kontra borroka egiteko bide egokiak izatea. Eta izutzen gaituenaren kontrako errekurtsorik onena, ezbairik gabe, irudimena da.



"Beldurrarekin jolasean"

Kontalaria: Pedro Alabazan



Itzal Itzelak

"Johnny Cold Feet"

Kontalaria: Bego Alabazan

Itzalek eta argiak bideratzen duten giro apartan kontatuko dugu Irlandatik datorkigun izen bereko ipuin herrikoia eta bertan "Few Clothes" protagonistaren gora

beherak ezagutuko ditugu. Ipuin herrikoietan gertatu ohi bezala, hasieran larri ibiliko da baina amaieran onean eta garaile amaituko du gutxien espero duenaren laguntzaz.

Iluntasunean


beldurrarekin jolastu eta itzalen, umorearen eta ipuinen magiaz gainditzeko aukera paregabea.



Azaroa

Itzal txinatarrez kontatutako Irlandar ipuin herrikoia

7 urtetik aurrerako umeentzat



Abendua

Eguberri-saioa

5-11 urte bitarteko neska-mutilentzat



Gabon-gaua berezian mila gauza magiko gertatzen dira. Orduan hasten diren abenturak ere magiko eta oso bereziak izaten dira. Gau honetan mamuek ez dute beldurrik ematen, sorginak ez dira txarrak eta inork ez daki non ezkutatzen diren herensugeak.

Denek lo egiten duten ordu hauetan zatoz inoiz amestu ez dituzun sekretuak aurkitzera; beno, egia esan, ziur asko den denak ez dira lotan egongo...



Horiez gain, [haurrentzako eta familientzako saio](#) gehiago ditugu, aukera dezazuen. Eta, jakina, [helduentzako ipuinak](#) ere baditugu, ipuinak ez baitira haurrentzat baino ez.

Ipuin-saio horiez guztiez gain, gure azken produkzioa ere proposatzen dizuegu:



“Luziaren sekretua”

Itzalen Antzerkia

4-10 urteko umeentzat

Txikiei zuzendutako itzal-antzerkiko ikuskizun honetan bere itzalarekin haserretzen den Luzia izeneko neskaren istorioa kontatzen dugu.

[Ikuskizun honek](#) geure burua balioesteaz eta gure argia eta itzala ere onartzeak duen garrantziaz hitz egiten digu.



Informazio gehiago gure web orrialdean:
www.alabazan.net

GUTXI GORABEHERAKO AURREKONTUAK

Saio bakarraren salneurriak hauek dira:

Ipuin saioa = 330,00 €

Itzal Itzelen saioa = 735,00 €

Ipuin saio Musikatua = 450,00 €

Itzalen Antzerkia = 1.200,00 €

4 saio eskatzen badiguzue, %10eko beherapena ezarri ahal dugu.

GUZTIRA 297,00 € x 4 saio = 1.188,00 €

8 saio eskatzen badiguzue, %25eko beherapena ezarri ahal dugu.

GUZTIRA 247,50 € x 8 saio = 1.980,00 €

Joaten garen tokiaren arabera posible da bidaia dietak gehitu behar izatea.

Salneurri hauei gehitu behar zaie %10eko BEZA.

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO



Bego Alabazan

Tlf. 637 30 20 07

bego@alabazan.net



Pedro Alabazan

Tlf. 670 33 60 29

pedro@alabazan.net

Gure gomendioak Ipuin Saioak gozatzeko

Komenigarria da saiora joango diren umeen adin-tarteak zehaztea.

Aholkatzen dugun ume-kopurua gehienez 50ekoa da, baina 2-4 urtekoak izanda, kopurua 30ekoa izatea egokiagoa da.

Beharrezkoa deritzogu neska-mutilak aulkietan jesarrita egoteari entzumen-giroa eta arreta hobetzeko; aulki hauek ezarriko ditugu lerro paraleloetan, erdiboribil bat osatuz.

Garaiz heltzea oso garrantzitsua da. Behin saioa hasita, bakarrik sartu ahalko da ipuin-tarteetan.

Ezinbestekoa da arreta eta entzumenerako giro aproposa sortzea eta mantentzea; saioa bitartean jan eta edateak ez du laguntzen.

Sakeleko telefonoak itzalita egongo dira, noski.

Onena liteke entzute-giro hau bermatzen duen arduraduna egotea saioan, hau ez baita narratzailearen ardura.

Gurasoak bere seme-alabekin batera etortzea eta parte-hartzea gustatzen zaigu; nagusiek beren txikien arreta eta interesa gutxitu dela konturatzean, saiotik atera beharko lituzkete besteek saioaz gozatzen jarrai dezaten.

Neska-mutilen arreta-maila beren adinaren eta egoeraren araberakoa da eta ez da batere gomendagarria saioa bukatu arte egoten behartzera, beraiek nahi ez baldin badute.

